

# Topalekua

35zk. 2006ko otsaila

febrero 2006 - nº 35

**or. 1 eta 3:** HKEEk EHURE Fiskalizazio-Txostena aurkeztu du Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuran.

**or. 2:** Gizarte Kontseiluak Euskal Herriko Unibertsitatearen

Lehenengo Graduondo Ofizialak onartu ditu.

**or. 4:** Europako Esparrura egokituta dagoen titulu-maparen proposamena.



## HKEEk EHUREN FISKALIZAZIO-TXOSTENA AURKEZTU DU UNIBERTSITATEKO GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAN

M<sup>a</sup> Asunción Macho Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariak Euskal Herriko Unibertsitatearen 2003ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio-txostena aurkeztu zuen azken Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuran. M<sup>a</sup> Asunción Machok azaldutakoaren arabera, unibertsitate publikoak aipatu ekitaldiko ekonomia- eta finantza-jardueraren arauketa behar bezala bete zuen, baina zenbait gomendio eman ditu legezkotasuna betetzeari begira, hain zuzen ere, Aurrekontua, Langileak eta Kontratazioa ataletan, bai eta Kontuen aurkezpenari begira ere.

## GIZARTE KONTSEILUAK EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN LEHENENGO GRADUONDO OFIZIALAK ONARTU DITU

Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak proposatu duenez, 2006/2007 ikasturterako finkatu nahi ditu 10 graduondo ofizial Euskal Herriko Unibertsitatean. Horiek dira, hain zuzen, EHUK abian jarriko dituen lehenengo graduondoko titulu ofizialak. Hori dela eta, aurrerapauso garrantzitsua izango da Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparru Erkidera egokitzekeo prozesuari begira; izan ere, prozesu horren xedea Europar Batasuneko herri guztietan homologa daitezkeen tituluen sistema bat sortzean datza.

Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak pasa den urtarrilaren 26an eman zuen ontzat ikasketa horien ezarpena, eta, orain, Gizarte Kontseiluak sinatutako akordioaren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailera igorriko da. Horrenbestez, informazio osoa Unibertsitateko Hezkuntza Koordinatzeko Kontseiluari eman-  
go dio.

Graduondoko lehenengo ikasketa ofizialak izan arren, programa gehienen jatorria EHUko doktorego-programetan islatzen da. Halaber, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Kalitate Aipamena jaso du, kalitatearen inguruan dagoen sari ofizial garrantzitsuena, bederen.

Proposatu diren programen artean, hiru ezagutza-arlo bereizten dira, hala nola, Zientzia Esperimentalak, Irakaskuntza Teknikoak, eta Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak. Kasu horietan, gutxienez, 60 kreditu, eta gehienez, 120 kreditu izango dituzte. Horietako bi oso-osorik ingelesez emango dira eta bestea zati batean; beste hiruretan, zati handi bat euskaraz emango da. Ikasketa-motei dagokienez, hamar programetatik bederatzi ikerketa-programak dira, eta, bat, hain justu ere, Multimedia Kazetaritza, lanbide-trebakuntzari buruzkoa da. Graduondo berri horiek kontuan izanda, Euskal Herriko Unibertsitateak data arte izan dituen titulu propioak eskainiko ditu.

Gizarte Kontseiluak proposatutako graduondo programa ofizialak hauek dira:

| GRADOKO PROGRAMA OFIZIALAREN IZENDAPENA                     | EDUKIAK                                                            | MOTA                       |
|-------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|----------------------------|
| Ingurumena eta Baliabide Naturalak                          | <i>Ingurumen Agrobiologia</i>                                      | <i>Ikerketa</i>            |
|                                                             | <i>European Master in Marine Environment and Resources</i>         | <i>Ikerketa</i>            |
|                                                             | <i>Ingurumeneko Kutsadura eta Toxikologia</i>                      | <i>Ikerketa</i>            |
| Biologia Molekularra eta Biomedikuntza                      | <i>Biologia Molekularra eta Biomedikuntza</i>                      | <i>Ikerketa</i>            |
| Kimika Aplikatua eta Material Polimerikoak                  | <i>Kimika Aplikatua eta Material Polimerikoak</i>                  | <i>Ikerketa</i>            |
| Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Iraunkorra        | <i>Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Iraunkorra</i>        | <i>Ikerketa</i>            |
| Informazioko eta Komunikazioko Teknologia Sare Mugikorretan | <i>Informazioko eta Komunikazioko Teknologia Sare Mugikorretan</i> | <i>Ikerketa</i>            |
| EURO MPM proiektuen zuzendaritza                            | <i>EURO MPM proiektuen zuzendaritza</i>                            | <i>Ikerketa</i>            |
| Multimedia Kazetaritza:<br>El Correo-UPV/EHU                | <i>Multimedia Kazetaritza:<br/>El Correo-UPV/EHU</i>               | <i>Lanbide-Trebakuntza</i> |
| International Master in Sociology of Law                    | <i>International Master in Sociology of Law</i>                    | <i>Ikerketa</i>            |
| In Economics: Empirical Applications and Policies           | <i>In Economics: Empirical Applications and Policies</i>           | <i>Ikerketa</i>            |
| Bankuak eta Finantza Kuantitatiboak                         | <i>Bankuak eta Finantza Kuantitatiboak</i>                         | <i>Ikerketa</i>            |
| Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Antolaketak eta Kultura.   | <i>Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Antolaketak eta Kultura</i>    | <i>Ikerketa</i>            |

## HKEEk EHUren FISKALIZAZIO-TXOSTENA AURKEZTU DU UNIBERTSITATEKO GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAN

Legezketasuna betetzeari dagokionez, HKEEk arauketa orokorrean behar bezala bete dela egiaztatu du; hala ere, aurrekontuaren aurkezpenik ez egiteaz gain, finantzaketarik ez zuten zenbait kreditu sartu eta obra nahiz zerbitzu batzuk administrazio-prozeduretan ezarri betekizun guztiak bete gabe kontratatu zirela ohartu da.

Kontuen atalari dagokionez, txostenaren arabera, EHUK 2003ko ekonomia-jarduera modu egokian aurkeztu zuen, baina inbentarioan bere ondare guztia ez dela jaso edo soberakin zehatzaren zenbait partida soberakin orokor gisa hartu behar direla adierazi da.

Barruko kontrolaren eta kudeaketa-prozeduren kasuetan, auzitegiak, beste gauza batzuen artean, honako puntu hauek azpimarratu ditu: bere iritziz, Gastu Unitateen gaur egungo deszentralizazioaren maila ez da operatiboa; EHUK baimena eskatu behar dio Eusko Jaurlaritzari langileen kostuei aurre egiteko, betiere aurrekontuaren izapidetza Gizarte Kontseiluan egin aurretik, eta beharrezkoa da soberakin zehatza aztertu eta araztea. Horrez gain, HKEEren ustez, positiboak izan dira langileen ordutegiaren kontrol-sistemaren inguruko aurrerapenak eta lan-bateraezintasunaren egoerak antzemateko egin diren esfortzuak.

Azkenik, finantza-azterketa egin ondoren, 2003ko ekitaldia ixtean soberakina negatiboa zela ageri-

agerian utzi da, batik bat, irakasleei aurrekontuan jasotako kopurua gainditzen duten ordainsari osagarriak ordaintzeagatik. Arazo horri aurre egin ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak 2004ko abenduan akordio bat sinatu zuten. Akordio horren arabera, Exekutiboak defizit horri estaldura emateko konpromisoa hartu zuen, hain zuzen ere, EHUri 15,4 milioi euroko maillegua emanez, hamabost urteko epean ordaintzeko, bi urtetan ordainketarik egin gabe.

### Bizkaia: xederekin sinatutako hitzarmena

Bilera berean, Kontseiluak jakinarazi duenez, EHUK eta bizkaia: xedek (Berrikuntza eta Ezagutza Prestatutako Pertsonen Mugikortasunari Laguntzeko Elkarte) hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren arabera, erakunde biek batera lan egingo dute Bizkaiko berrikuntza- eta ezagutza-prozesuan prestakuntza handia duten pertsonak erakarki eta bertan geratzeko, bai eta unibertsitatearen esparruan enpresa-ekimena garatzeko ere.

Horretarako, EHUK instalazioak eskainiko ditu Bizkaiko campusean enpresa-inkubadorea ipintzeko; instalazio horien artean, gutxi gorabehera 600 m<sup>2</sup>-ko azalera eskainiko da, eta bizkaia: xedek 500.000 euroko inbertsioa egingo du ekipamenduetarako.



## EUROPAKO ESPARRURA EGOKITUTA DAGOEN TITULU-MAPAREN PROPOSAMENA

Gobernuak denbora gutxi barru Europako Hezkuntzaren Esparrura egokituta dauden unibertsitateko titulu berrien katalogoei buruzko proposamenak aurkeztuko ditu. Izan ere, aipatu katalogoa pixkanaka-pixkanaka ezarri nahi da 2007-2008 ikasturtetik aurrera. Hori dela medio, unibertsitateko titulu-maparen berrantolaketa aztertzen diharduen Unibertsitateko Koordinazio Kontseiluaren 17 adituk osatutako kanpoko batzordeak emandako gomendioen arabera eratu da.

Unibertsitateko Koordinazio Kontseilua Espainiako Unibertsitate sisteman dagoen organo aholku-emaile eta koordinazio-organoa garrantzitsuenak da. Organoa hori errektoreek, autonomia-erkidegoetako Goi mailako Hezkuntzaren arduradunek eta Kongresuak, Senatuak eta Gobernuak aukeratutako zenbait kideak osatzen dute.

Oro har, karrera-kopurua erdira murriztuko da, graduako 79 titulu egongo dira, gaur egungo 140 karreraren ordez.

Proposamen horiek lanbide-elkargoekin, sindikatuekin, enpresaburuekin eta unibertsitateekin eztabaidatuko dira, behin betiko proposamenak eratu baino lehen. Behin betiko proposamenen informazioa

Unibertsitateko Koordinazio Kontseiluaren Ikasketa Batzordeak eman beharko du, errektoreez osatzen denak, eta proposamenok Estatu Kontseilura bidaliko dira. Gida-lerroak, azken finean, Errege Dekretuen bidez onetsiko dira, eta unibertsitateek horiek abiapuntu hartuta euren ikasketa-planak egingo dituzte.

Oinarrizko ikasketa-prestakuntzaren kreditu-kopuruari dagokionez, 180 kreditutan prestakuntza erkideari buruzko edukia jasotzen da; horrez gain, beste kreditu-kopuru bat gehituko da prestakuntza osagarria emanez (60 kreditu arte), batez ere, lanbide-ikuspegia hobetzeraz zuzenduta (karrera-amaierako proiektua edo praktika zehatzak barne).

Gida-lerro horien barruan, gutxienekoak jaso dira, hain zuzen ere, titulu bereko ikasketa-plan guztiek balio bera izan dezaten. Gainera, unibertsitateek akordioak eskuratu ahal izango dituzte euren ikasketa-planak bat etortzeko irakasgai bateragarrien bitartez.

Graduko katalogoa definitzeko prozesuari begira, unibertsitateek autonomia-erkidegoei modu paraleloan proposatu die hurrengo ikasturtean 1 edo 2 ikasturteko iraupena duten graduondoak (60-120 kreditu) eskaintzea.

### Graduko titulu berrien eskema



### Proposatutako graduko tituluenak

Unibertsitateko titulu-maparen antolaketa Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokitzeko azterketa egiten diharduen Adituen Kanpoko Batzordeak hirugarren bilera egin zuen pasa den otsailaren 8an; bilera horretan erabakitakoaren arabera, MEC unibertsitateko beste 22 tituluaren gida-lerroak eratzeko arduraduna izatea erabaki zen, irailaren 21ean planteatutako 22 tituluei gehituz. Gaur arte proposatutako 44 tituluak hauek dira:

| GIZA ZIENTZIAK                                                                                                                                                                                                                                                                            | GIZARTE ZIENTZIAK                                                                                                                                                                                                                              | TEKNIKOAK                                                                                                                                                                                                                                                    | ESPERIMENTALA ETA OSASUN-ARLOKOAK                                                                                                                                                                     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Filosofia<br>Historia<br>Artearen Historia<br>Geografia<br>Hizkuntza<br>Modernoak eta Literatura<br>Modernoak<br>Gaztelania eta horren Literaturak<br>Itzulpen gintza eta Interpretazioa<br>Filologia Katalana<br>Galiziar Filologia<br>Euskal Filologia<br>Arte Ederrak<br>Dokumentazioa | Ekonomia<br>Enpresen Administrazioa<br>Zuzenbidea<br>Psikologia<br>Haur Maisutza<br>Lehen Hezkuntzako Maisutza<br>Turismoa eta Lan Zientziak eta Kriminologia eta Segurtasuna<br>Politika eta Administrazio Zientziak<br>Komunikazio Zientziak | Telekomunikazioen Ingeniaritza<br>Ingeniaritza Mekanikoa<br>Ingeniaritza Aeronautikoa<br>Nekazaritza eta Baso Ingeniaritza<br>Industria Ingeniaritza<br>Ingeniaritza Elektrikoa<br>Ingeniaritza Mekanikoa<br>Ingeniaritza Kimikoa<br>Materialen Ingeniaritza | Matematikak<br>Fisika<br>Biologia<br>Kimika<br>Geologia<br>Medikuntza<br>Erizaintza<br>Fisioterapia<br>Ingurumen Zientziak<br>Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak<br>Logopedia<br>Odontologia |